

Hitz beste

Haur eta gazte liburuen kritika eta erreseinak

Nire urtebetetzea

ROSA COLLADO

Ilustratzailea: ANDREU RIERA

Trapella books, Barcelona, 2010

Haurtzaroa funtsezko garaia da, pertsona osatzen den garaia. Oinarri horrek betiko irauten du. Rilke poetak zioen gizakiaren benetako aberria haurtzaroa dela. Eta, haurtzaroan, zenbait liburuk haurra irakurle izateko bidean jarriko dute. Sehas-
katik bertatik, abesti eta irudiek, haurra liburuen unibertsoa hurbiltzen eta ohitzen doa.

Denbora batean, irakurketaren hasiera lotzen zen alfabetoa eta letrak ikasten ziren sasoiarekin. Egun, nahiko zabaldua dago alfabetoa deskodetzen jakitea ez dela abiapuntua, hobe dela liburuarekiko harremana al baita goiztiarrena izatea irakurlea egin nahi bada, irakurketa irudiak ezagutzearekin hasten baita.

Merkatuan sei hilabetetik gorakoentzako liburuak erraz aurkitzen dira, liburuak objektu gisa hartzen dutenak, alegia, gomazko eta telazko liburuak, bainatzekoak, neurri, forma, kolore eta testura ezberdinetako liburuak, liburu zabalgarriak, soinudunak eta abar.

Emozioak eta informazioa azaltzeko balio dute, baina gero eta sarriago, liburu-proposamen haue-
tan istorio bat garatzen da. Bestalde, argitaletxeak euren katalogoetan liburu mota honi garrantzia eta espazio propioa ematen hasiak dira, bildumak osatzen joan baitira, iraupena izango duten bildumak, hain zuzen ere.

Nire urtebetetzea bildumako liburuak, zentzu horretan, aukera ematen diote haurri denbora eta norberaren esperientziak neurtzeko. Lau izenburu, lau urte eta sorteguna beti ardatz hartuta, egun berezi hori ospatzeko aitzakia. Liburu dibertigarriak eta bitxiak, non haurrek urte eta zenbakiekin jolasten ikasiko duten.



Lau ipuin hauen irudiak garbiak dira, biziak eta koloretsuak, sinpatikoak. Trapella argitaletxea katalana da eta, hitzak hizkuntza horretan adierazten duen bezala, «liburu bihurriak eta alaiak» egiten dituzte. Edizio eta diseinu zainduan, haurren liburuen ezaugarriak kontuan izan dira: formatu txikia, orri gogorrak, ertz leun eta biribilduak, zuloxoekin —haurrak atzamarrak sartu ahal izateko— eta sendoak, irauteko eginak. Lau ale eta lau zenbaki simple ikasteko, lau urte ospatzeko.

Lau ipuin horien irudiek haurren mundua islatzen dute, animaliek dute protagonismoa eta ipuinaren amaieran beti kandeladun tarta agertzen da. Lau urteko liburuak informazio gehiago sartzen du, urtaroarena esaterako eta horren inguruko galdera batekin amaitzen da. Ipuin honi irakasteko kutsu handiagoa antzematen zaio, baina kontzeptuak barneratzeko era dibertigarria da erabat.

Testuaren egilea zein ilustratzailea guretzat ezezagunak dira, baina argitaletxearen sorreratik

hartu dute parte, 1987tik eta hezkuntza eta arte plastikoaren mundutik datozen profesionalak dira. Euskarara itzuli duen egilerik ez da aipatzen, ahaztu egin duten seinale, eta, hortaz, akats bibliografikotzat har daiteke.

Ezusteko polita izan da liburu hauekin topa egitea, haurtzaroa sasoi eragingarria bihur dezaketen liburuak baitira. Irakurtzea bizitzaren osagai izateko bide amaigabea, haurtzaroko liburu hauek aurkikuntza gomendagarria dira guraso eta bitartekariarentzat.

Asun Agiriano



Zein polita den panama!

HORST ECKER, JANOSCH

Itzultzailea: AINHOA IRAZUSTABARRENA

Pamiela & Kalandraka, Iruñea, 2010

Bidean

Janosch gaitzenez ezagutzen dugun Horst Ecker 1931n, Polonian, jaio zen. München Arte Ederrak ikasi eta artista independente gisa lanean hasi zen, 1960. urtean haurrentzako lehenengo liburua kaleratu eta bizimodua aldatu zitzaion arte. Esku artean dugun ipuin hau 1978an argitaratu zuen, eta sekulako arrakasta ekarri zion; hortik aurrera, egileak haur-literaturan itzal handia izan du, batez ere, germaniar hizkuntzak hitz egiten diren herrialdeetan.

Panama ipuin «polita» dela ukatzerik ez dago, erritmo musikala du, irribarra azalarazten digu, barru-barruko emozioak mugitzen dizkigu... nahiz eta ez jakin garbi zergatik ari zaigun hori gertatzen. Irakurtzea gustatu bai, baina idazten hain trebeak ez garenok ipuin eta pertsonaia batzuen gertuko sentitzen gara tarteka, jakin barik nola adierazi sentimendu hori.

Janosch-en haurrentzako liburuez sentimenduzkoak direla esan ohi da. Mundu zoriontsua islatzen dute, hunkiberatasun handia eragiten duten ilustrazioekin. Honela dio berak: «Ume-denborako aldarrea unibertsuaren aurrean dugun harridura txundigarriarekin aldera daiteke. Munduan izate hutsak bizipoza dakarkie».

Janosch-entzat haurtzarora osotasunaren erreinua da, eta alde horretatik ipuinak munduaren aldeko sentimendu positiboa erakusten du, ipuin goxoa da, baina ironiaz zipriztindua, zibilizazioari neurtutako kritika egiten dion bitartean.

Hartza eta tigre txikia animalia gizatiartuak dira eta toki ideal baten bila dabilta, Panama lurraldea da euren Itaka. Ipuinean azaltzen zaigun mundua beste mende batekoa da, agertzen den natura idealizatua eta bitxia da, bizirauteko behar dugun guztiaz hornitzen gaituena: arrainak, bananak eta bidean bertan aurkituko ditugun aurkikuntzak, teknologiatik urruti.

Janosch-ek esanak dira haurrak pentsamendua baino lehenago irudiak direla. Horregatik, agian, egile honek erabiltzen dituen ilustrazioak garbiak dira, abstrakzioetatik urrun, alai eta koloretsuak, klasikoak eta harmoniaz beteak.

Istoria abenturaren eta ordenaren arteko gatazkan garatzen da. Adiskidetasunaren eta baikortasunaren laudorio da. Panama toki partikularra da, eta leku bitxi horren bila hartzak eta tigre txikiak eginiko bidaia norberaren heldutasun eta emozio berrien aurkikuntzaren sinbologiarekin lotzen da.

Esan behar da, halaber, sortzaile handi honek helduen narrazioari beldurrik ez diola; adibidez, Poloniako haurtzaro gogorra umore-ukitu ironikoaz kontatzen duenean, edo ilustrazio zirrikatzailak egiten dituen hainbat idazle bitxirentzat, hala nola, Bukowski-ren testuetan argitaratu dituen trufaz beteriko marrazkietan.

Janosch idazle eta margolaria 1980tik Tenerifen bizi da. Panama idealizatua, toki ideala, bere lurralde mitikoa aurkitu ote?

Post scriptum:

Udazken honetan Elkar argitaletxeak, Kuku sailan, Janosch-en beste liburua bat kaleratu du *Esan, ama, nork egiten ditu umeak?* izenburupean. Hori ere liburua bitxia ume nagusitxoagoentzat.

Asun Agiriano



Armairu barruan ipuinak irakurtzen zituen neska

LEIRE BILBAO

Ilustratzailea: ESTIBALITZ JALON

Erein, Donostia, 2010

Ametza egia denean

«Armairu zahar bat daukat logelan. Nire aitaren amarena izan zen.» Esaldi horrekin ekiten dio Leire Bilbaok ipuin labur eta interesgarri honen kontaketa. Irakurleak, liburuaren izenburuari erreparatuta, ikusi ahal izan du neskatala bat dela protagonista, liburuzalea—edo ipuina irakurtzen dituen, behinik behin— eta armairu bat ere ageri dela istorioan.

Eta, hain zuzen, armairu zahar hori etxetik eraman nahi dute eta asmo horren inguruan eraikita dago ametsa eta errealitatea, oroitzapenak eta oraina nahasten dituen ipuin xume eta lortu hau.

Ane, istorio honetako protagonista eta narrazioa, sarritan bere gelako armairu zahar eta handian ezkatzen da liburuak irakurtzeko, eta, oraingoan ere, izaba Mireni armairua eraman nahi dioten honetan, Ane barruan ezkatutako da. Alizia, Tom Sawyer, Pipi... asko dira Anerekin armairu barruan dauden pertsonaiak (guztiak haur- eta gazte-literaturako klasikoak), eta horiekin konpainian dagoen bitartean Anek hainbat abentura izango ditu armairu zaharra dela eta.

Ipuin laburra da Leire Bilbaok idatzi eta Estibalitz Jalonek ederki, bere estilo propio eta ezagun

horretan, ilustraturiko lana. Laburra, baina era berean oso bizia, hainbat lekutan, ametsetan eta errealitatean, hainbat planoetan... kokaturiko istorioa.

«mona Antiguaren armairua nire ezkutaleku kuttunena da. Goiko partean linterna bat eta liburuak gordetzen ditut, eta inork molestatu gabe neure kasa egon nahi dudanean bertara sartzen naiz» (10. or.) dio Anek, eta, hain zuzen, armairu zahar horren magian eta armairua eramatean eginiko bidaian oinarritzen da ipuina; bi mundu dira, armairu barruan Anek bizi duena liburuekin, ipuinetako protagonistekin, eta bestetik armairua eramaten dutenean —Ane barruan geratu delarik— jazotzen diren egoera bitxiak (abandonaturiko traste zaharrez beteriko mendi batean uztean, ijito-familia batek hartzen duenean, merkatu batean armairua salgai jartzen denean...). Eta abentura horietan —Ane armairu barruan baitago— irakurlea protagonistarekin identifikatzen da; Anek berak narrazioak hori dakar eta: irakurleak neskatarikaren begiradaren bidez ikusten baitu guztia, neskatarikaren sentimenduen bidez sentitu, Aneren beldurren, jakin-minez edo lasaitasunez (denetarik baitu istorio honetako protagonistak) bizi.

Liburu ederra eskaini digute Bilbaok eta Jalonak, egia eta ametsarekin jolastuz, egia ametsa izan baitaiteke, edo ametsa egia. Modu batean nahiz bestean irakurlea ateratzen da garaile obra honetan.

Xabier Etxaniz Erle



Sara, nor zara?

M. BERRETONI CARRARA

Ilustratzailea: CHIARA CARRER

Itzultzailea: FERNANDO REY

Pamiela&Kalandraka, Iruñea, 2010

Chiara Carrer italiar ilustratzailea, obra zabalaren egilea da. Bere kalitatearen erakusgarri, aitoren-sari mordoxxa bat jaso du, besteak beste Unicef saria (1995) eta Italiako «Premio Andersen-Il mondo dell'infanzia» (1999) —ez nahastu otoi IBYren Andersen sariekin— saria. Bere lanak irakurle txikiarentzako tituluz bete dago, gehienak gure liburutegietan topatzeko moduan, hori bai gaztelania eta frantses itzulpenetan. Euskaraz irakurriko diogun lehen obra dugu *Sara, nor zara?* hau.

Lankidetzan gidoigile den Marco Berrettoni Carrara idazle ezezaguna zaigu, sarean emaitzarik ematen ez duena eta bere aurreko obra, hortaz, ezagutezina zaiguna.

Sara, nor zara? tapa gogorreko 22x22 liburu karratua da. Obrak dituen 32 orrialdeetan irudi lanketa oso zaindua erakusten du. Liburuaren xedea nabarmena da, oso agerikoa: autismoaz hainbat argibide eman nahi zaizkigu. Asmo hezitzaile hau lortzeko, haur autista baten neba den narrazioa izango dugu lagun. Sararen neba. Honek bere azalpenak jantzeko ez digu inongo anekdotarik azalduko, aitzitik, Sararen hainbat ezaugarri adieraziko dizkigu, bere deskribaketa psikologikoa osatzeko.

Arlo bisualari dagokionez, istorioa eraikitzeko ardatza hain modan dagoen collagea da. Honi

arkatzezko marrazketa eta ordenagailuzko koloretzatzea gehitzen zaio. Marrazketaren sinpletasunak, letra lotuan agertzen diren testu parteteek eta hurren munduari atxikitako gainerako irudien presentziak narrazioaren eta bere neba autistaren ikusmoldeetara hurbilazten gaituzte, haienganako atxikimendua sortzeraino.

Kontu handiz aukeratuta daude Sararen agerpen guztiak: aldatzearen arabera bere bisaia aldatuz doa, hala nola bere gardentasuna eta bere itzalaren forma. Bereziki Sararen itzala da haren psikearen asaldatzeko irudikatzen dituen, une batzuetan gorputzaren eta itzalaren artean erabateko haustura proposatzen delarik. Koloreak sepiaren eta gorriaren artean dabilta bereziki, berdea kontrapuntuzat erabiliz.

Ezaugarri estetiko guzti hauen artean arestian aipatu dudana aldatzea edo atmosfera guztiz lortzen da eta xede duen gaitzaren erretratu nabarmenki burutzen du.

Testuak ildo honi jarraitzen dio. Esaldien sinpletasuna eta laburtasunak hauraren pentsamendu sinplea eta ekintzaren beraren bat-bateotasuna islatzen ari zaizkigu. Ibilbide narrazio biko dagoenik ordea ezin esan. Protagonistak bere arrebaren jokamoldeak eta ezaugarriak adierazten dizkigu, arrazoibide jakinik gabeko hurrenkeran, argazki bilduma bati begira ariko bagina bezala, orain pasarte hau hurrena bestea aipatuaz, baina orrialdez orrialdeko lotura agertu gabe. Amaierarako arrebaren erretratuaren jabe garenik ezin uka, baina hau dena zergatik kontatu diguten jakin gabe geratzen gara, ez baitago istoriorik, are gutxiago abenturarik narrazioaren atzean.

Intriga narrazio bakarra —Sararen psikean egiten dugun bidaiaz gain— azken orrialdean dugu. Bertan protagonistak bere familia aurkezten digu eta bi huts egiten ditu: bere arrebari ahizpa deitzen dio eta emakumezko bati osaba. Gerta liteke itzulpen mailako gaizki-ulerter bat egotea tartean —halakoak gertatu gertatzen dira—, baina ematen du protagonistaren kontua dela.

Ondorio bezala, esan genezake gidoigintzan duela punturik ahulena album honek, aspaldion kaleratzen dituzten album askorekin gertatzen den bezala, hari narrazio sendoarene falta sumatzen zaio, ausazko irudi metaketaren inpresioa sortzerainokoa. Teknika honen alde esan liteke denboraren nozioa alde batera utzita kontagintzaren beste

teknika batzuetan sakontzen dutela, obraren gai nagusia era poliedrikoan azalduaz, irudien segidak duen lotura nagusiaz hausnartzeko argudioen, ikuspuntuen eta iritzien errebasoa eginez.

Era berean, unez uneko edo ekintzaz ekintzako kontaketa ez bezala, teknika poliedriko honek irudigileari bidea ematen dio ñabarduretan sakontzeko, azken emaitza grafiko indartsuago baten mesedetan, esaterako, komunikazio gaitasun handiagoarekin. Hortaz ez da hutsala

gidoiak lantzean egile ugarik erakusten duten joera errepikakor horren ondorioz irudiaren eta gaien aberastasuna dugula gogoratzea.

Album ilustratuak esperimentazio ahalegin handia erakusten ari dira, emaitza ikusgarriak eta lan ildo berriak eratorri dituztenak. Erakusten ari dira ere sentikortasun berezia aukeratutako gaietan eta hauei ematen dieten trataeran,

hainbestekoa ezen hezitzaile eta terapeuten itzala ohikoa bihurtzen ari baita alor honetan.

Sara nor zara? album *delizios* honek ere dohain hauek ditu: irakurlea seduzitzeko irudi lan bikainaren ondoan autismoa bezalako gai interesgarri bati buruz mintzo zaigu, adin guztietako haurroi.

Imanol Mercero



Baltaxar inoizko astorik bakartiarena

INGE MISSCHAERT

Ilustratzailea: MARIEKE COENEN

Itzultzailea: UXUE ALBERDI

Ttartalo, Donostia, 2010

Bizimodu berri bat

Album honek irakurlearen arreta erakartzen du hasieratik. Alde batetik izenburuak zerbaite iradokitzen digu, ez da asto bakarti baten istorioa, inoizko astorik bakartiarena baizik, eta horrek bakardade sentimendu handia esan nahi du. Eta, beste aldetik, irudiak, azaleko irudiak bizitasuna —oso berde bizia ageri da ia azal guztia betez— eta sinpletasuna adierazten dizkigu, baina horietaz gain Baltaxar astoaren pertsonifikazioa (panpina bat du eskuan bi hankatan ageri zaigun astoak).

Istoria ere oso bat-batean hasten da, irakurlea protagonistarekin berehala identifikatzeko moduan, edo tramaren muinean buru belarri sartzeko hasiera-hasieratik. «Baltaxar», esan zion asto amak zorioneko egun batean. «Bada esan nahi dizudan kontu bat». «Noizbait joan egingo naiz. Zin egidazu falta naizenean asto ona izango zarela». Hitz hauekin hasten da liburua, eta hasierako bi orrietan asto ama eta Baltaxar ageri badira ere, hortik aurrera ez da amaren arrasto gehiagorik izango liburu guztian zehar.

Baltaxarrek, ama falta delarik, bidaia bati ekingo dio. «Noizbait» haren bila, eta bidaia horretan hainbat animalia izango ditu lagun, barraskiloa, igela, ardia, zaldiak... oso garbi ez dugun nora-bidea hartzen duen bidaia


Protagonistak bizi dituen une eta egoeren lekuko izango gara, bere poza, nekea edo tristura ikusi ahal izango dugu, baina bakardade horretan beti dago norbaitekin. Sarritan bidaian lagun dituen animaliekin, baina baita amarekin, haren presentzia etengabea baita liburu guztian amaieran txakurrarekin duen elkarriketa arte. Izan ere, txakurrak argi eta garbi erakutsiko baitigu —aipatu gabe— Baltaxarren ama hil egin zela eta berak, txakurrak, ere bat-batean joan nahiko lukeela: «Horixe da modurik onena [...] Horrela joan nahi dut nik, pozik eta bat-batean. Baina oraindik ez!».

Bitxia da, alde horretatik, heriotzaren gaia tratatzeko idazleak aukeratu duen modua. Eta, era berean, harrigarria eta deigarria ilustratzaileak istorioari bizitasuna, mugimendua, ekintzen ugaritza erakusteko erabilitako teknikak. Batzuetan paisaia batean protagonista ageriko zaigu behin

baino gehiagotan —ibilbidea edo ekintzen progresioa adieraziz—, bestetan irudi txiki ugariz osaturiko orriak azalduko zaizkigu, baina batzuetan nahi besteetan sinpletasuna eta umorea islatuko dira Coenenen irudietan, eta albumetan ageri behar bezala, irudiaren eta testuaren irakurketak, hots, bien arteko konbinaketak, adieraziko digu mezua. Horrela, barraskiloak eta Baltaxarrek hirian errepidea gurutzatzean izaniko larritasunak hitzik gabe «irakurri» ahalko ditugu irudiei esker, edo astoak ez jakin arren, guk berehala ulertuko dugu zergatik ez dion igelak informazio gehiago ematen Baltaxarri. Era beran, amaren ikaskizunak, oroitzapenak edo txakurrarekin izaniko elkarriketa, esaterako, testuaren bidez ezagutuko ditugu.

Inge Misschaert eta Marieke Coenen egile dituen liburu honetan heriotzaren bat jazotzen denean aurrera jarraitu beharreko irakasgaia agertzen zaigu. Baltaxarren ama desagertu egiten da; «goiz batean bakar-bakarrik esnatu zen» Baltaxar, eta berehala ulertzen du ama joan egin dela eta bidaiari ekiten dio barraskiloarekin, ez hori egiteko asmoa duelako, «noizbait» delakoaren bila ari delako baizik. Hala eta guztiz, bidaia horren amaieran Baltaxarrek, amaren ikaskizunak gogoan izanik, atsedean hartzea erabakitzen du; bizimodu berri bati ekitea: «Gero, sakon hartu zuen arnasa. Eta mugitzen hasi zen. Mantso-mantso. Astoek ez baitute ezertarako presarik izan behar».

Xabier Etxaniz Erle



Kanpokoia naiz
SEVE CALLEJA
Ilustratzailea: EIDER EIBAR
Elkar, Donostia, 2010

Geure burua ezagutzen

«Eta zer?» bildumako liburu guztiek gairen bat ukitzen dute, izenburutik bertatik agerian geratzen den gaia. Oraingo honetan ere argi eta garbi du irakurleak zeri buruzko liburua eskaintzen zaigun. *Kanpokoia naiz* adierazten digu protagonistak izenburuan eta irakurleak berehala igar dezakeen bezala immigrazioaren inguruko lana eskaintzen digute Seve Callejak eta Eider Eibarrek.

Honelako lanetan nahiko ohikoa izaten da mezu- edo balioan jartzeta indarra eta ez hainbeste istorioa kontatzeko eran; hots, poetikotasunean baino gehiago bultzatzen dela ideien pisua. Ez da hori liburu honekin gertatzen dena. Hasiera-hasieratik ikus dezakegu istorioa narratzeko idazleak erabilitako trebezia, zehar-bidea:

«Gaur goizean ikastetxeko sarreran Leire niri begira sumatu dut.

—Begira, amatxo, hori da aipatu dizudan hirugarren mailako gure lagun beltzarana —esan dio amari, nik entzuten ez nuelakoan.

—Oso sinpatikoa dirudi.

—Bai, barre egiten duenean, ez zaizkio ia begiak ikusten, eta hitz egitean, kantuan ari dela ematen du». (4. or.)

Callejak neskatilak amarekin duen elkarrizketa hori erabiltzen du liburuko protagonista, Andres, deskribatzeko. Beno, Andres edo. . . «Andres dut izena, baina gurasoek arindu egin zidaten pixka

bat izena, eta orain Andy deitzen didate lagunek. Andereñoak, berriz, Ander deitzen dit». (4. or.)

Kontua da Ander, edo Andy, amonarekin bizi dela, bere *amamitarekin*, eta Bolivian geratu ziren gurasoak dituela sarri gogoan; ez haiek bakarrik, baita hango kultura eta ohiturak, baina era berean Ander klaseko errealitatean integratuta ikusten dugu. Hain zuzen gabonetan dago girotua istorioa eta Olentzerorekin egin behar duten ibilaldian amaitzen da —oso modu orijinalean— Anderren narrazio hau.

Kanpokoia naiz liburu honek duen argumentua oso sinplea da, narratzaileak —Anderrek— klasean jatzeko zenbait istorio, elkarrizketa, gertakari, kontatzen ditu; nola dagoen eskolan, amonarekin bizi dela, amonak banku batean lan egiten duela, eskolako gainerako lagunekin izandako anekdotak (Titikaka lakuaren izenarekin. . . edo munduko bolan beren herrialdeak seinatzean); Anderrek hizkuntza ezberdinen berri emango die bere lagunei, eta baita azaldu Bolivian dituzten ohiturak.

Kontuak oso azkar irakurtzen dira, elkarrizketa biziz osaturiko pasarteak dira, haurren mundua eta irudimena ederki islatzen duten elkarrizketen bidez osatuak, eta alde horretatik protagonista oso sinetsgarria egiten da, gainera, Eider Eibarrek eginiako irudi bizi eta egokiek ederki islatzen dute testuak dioena eta biek, bai testuak bai irudiak, Anderrekiko sinpatia izatera bultzatzen dute.

Liburuak, gainera, gogoeta egitera bultzatzen gaitu. «Zenbat herrialdetako izan daiteke pertsona bat?» (16. or.) galdetzen du une batean andereñoak klasean. Eta galdera horretatik abiatuta iritzi ezberdinekin aurkitzen gara, «herrialde batetakoak bakarrik» edo «persona bat izan daitekeela herrialde bat baino gehiagotakoa. Horretarako bertakoak bezala bizitzen jakin behar da eta haiek bezala hitz egin» (16. or.).

Haurren komentario sinple horiek (itxuraz bakarrik sinpleak diren horiek) oso aproposak dira arestian aipaturiko gogoeta eta eztabaida bultzatzeko, eta hain zuzen horixe da liburu honen bertute handienetarikoa bat, istorio sinplea irakurri ondoren buruan bueltaketa geratzen zaigula Anderrek esandakoa, kanpotik etorritakoak hobeto ulertzeko lagunduko digula, gu geu hobeto eza-gutzeko lagungarria izango zaigula.

Xabier Etxaniz Erle



Chillida eta ni
ELI LANDA
Alberdania, Irun, 2009

Harri kulunkariak

Eskultura batek istorio asko kontatu dezake, berarekin jolas egiteko gogoia piztu edo, akaso, eskulturaren bertan, barruan, sartzeko tentazioa sortu.

Esku artean dugun album ilustratuak haurrei artearen inguruan galderak egiteko balio dezake eta, halaber, aitzakia da irakurleak Chillida sortzaile oparoarekin harremanetan jartzeko. Idazle/ilustratzaile berri honek gonbita egiten dio haurri artearekiko interesa izateko eta berez baduen sentsibilitatea baliatzeko.

Liburua 2009. urtean Alberdania argitaletxeak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratua dago. Esango dugu irudiak eta hitzak biak direla Eli Landarenak, liburuan narrazioa aitortzen baitaio soilik, eta ez baita adierazten norenak diren ilustrazioak.

Chillidak Donostian eta Gipuzkoan ez ezik, mundu osoan du presentzia handia, batez ere, eskultura lanak direla eta. Paisaiarekin bat egiten duen artista, espazioari forma eta hitza eman zion gizona. Horregatik, deigarria da egileak eskultoreak zituen ideia sakonak sinplifikatzeko egin duen ahalegina. Liburuaren haria daramana Ainhoa da, lau urte dituen neskatok; margotzea asko gustatzen zaionez, artearen munduan murgiltzen gaitu eta Eduardo Chillidaren haurtzarora, artearen hastapenaren urratsak, obra nagusiak, etab. erakutsiko dizkigu.

Liburuak pistak ematen ditu artea ulertzeko, modu samur eta zuzenean, hasierako poeman, esaterako, «nik hitz egiten dut harriekin» (non artistak bere egitekoa azaltzen digun, oso modu argi eta adierazgarrian) edo testuaren esaldi laburren bidez: «bere inguruari begiratzea gustatzen zitzaion, argiaren kolorea ikusi eta airearen ukia

sentitu». Tonu poetikoa antzematen da narrazioan: «Chillidak burdina bihurritu egiten du mintzoa ateratzen dion arte». . . haurren ulermen mailara bikain egokitzen dena.

Horrez gain, hitzetatik sortutako mundua irudikatze ahalegin eta trebetasun handia dago liburuan. Ilustrazioa hizkuntza artistiko bezala garatu du Landak, irudiei aberastasun handia emanen. Irudiak gailentzen diren arren, ez dute testuaren zeresana irensten, hau da, ez da horregatik Chillidari buruzko informazioaren interesa galtzen.

Narrazio eta ilustrazioekin bideak zabaltzen zaizkie haurrei eskulturaren interpretazioa egiteko. Alde horretatik, egundokoa izan da Chillidaren lanak zer indar izan duen artisten inspirazio iturri izateko eta zer nolako ahalmena duen haurrari ere edertasunaren eredu garbia komunikatzeko.

Amaieran hamahiru joko daude aurretik emandako informazioaren inguruan, irakurleak jaso dituen ezagupenak modu entretenigarrian adierazirik: labirinto jolasa, desberdintasunak bilatzea, ohiko margotze ariketa, etab. Concetta Probanza eta Borja Muñoz dira Jolastegi izenarekin datorkigun atal honen diseinatzaileak. Biek elkarlanean egindako ekarpen baliotsua da, liburuaren osotasunean ezinbesteko plus estetikoa —didaktismoan erori gabe— eta haurren sorkuntza erraztuko duena, gaian gehiago sakontzeko aukera eta ludikotasunaren aldarria eskaintzen diguna.

Narrazioa eta irudimen jolaserako proposamen hauek guztiak osagai egokiak dira irakurlearekin konplizitatea bilatzeko.

Chillida eta ni helduok umeekin konpartitzeko liburua dugu, artearen gertuko hurbilketa ere badelako. Zentzu guztietan, denon artean gozatzeko obra, haurrekin estetika lantzeko gogoia piztuko duen liburua.

Asun Agiriano



Euskal mitologiako kondairak haurrentzat

J. M. OLAIZOLA, TXILIKU

Ilustratzailea: JOSE ANGEL LOPETEGUI
Elkar, Donostia, 2010

Ezagun da euskal mitologia oparoa dela pertsonaia ongile, gaizkile, kontakizun, ipuin eta kondairetan. Egungo garietako zalapartaren zurrunbiloak irentsi samarturiko bizi gara eta, horrenbestez, belaunaldiz belaunaldi ahorik aho kontagai izan diren ipuin mitologikoak galbidean dira, gure arbasoenaren aldean hain ezberdinak diren egungo bizimoduak eta gauzekiko ikusmoldeak eraginda, ziur aski.

Betiko ipuin horietako batzuk biziberritu, soineko berriez jantzi eta haurrei ezagutarazteko eginahal horretan, majo asmatu du Txilikuk *Euskal mitologiako kondairak haurrentzat* liburu honekin. Taxuz heldu dio gure kulturaren zati den esparru jori honi, bere lana kondaira-bilduma hutsa izatera mugatu gabe. Irudimenez jokatu du kontakizunen matak harildu eta ontzeko garaian.

Hamasei pertsonaia mitologikoren eskutik —ongileak eta gaizkileak, tarteko— ibilian-ibilian hamar kondairatan murgiltzeko aukera eman digu oraingoan. Liburu honek aurretiaz hiru liburukitan era berezian argitaratu emandakoa biltzen du. Hiru atal ditu, hartara, eta horietako bakoitzean ageri diren pertsonaia mitologikoak eta kontagai diren aldiro kondairak ongi hautatuak dira. Baina aletu ditzagun hiru atalok banan-banan.

Estreinakoa *Arratsalde bat Marirekin* izenburupean datorkigu eta denon ezaguna den Mari

jainkosaz gain, suzko suge bilakatu eta berriro ere, gizaki itxuraldatu daitekeen Maju bere senarra eta beraien semeak diren Mikelats eta Atarabi dira nagusi. Eta, honetan, bosgarren pertsonaia mitologikoa ere badago, indar magiko handia duen *Sugar* deiturikoa.

Bigarren atal *Kontuz gizakiekin* du izenburu eta naturarekin loturiko izakiak dira protagonista. Honako hauek, hain zuzen ere: laminak, Basandere, Basajaun, Herensuge eta jentilak. Eta liburuan aurrera eginez, hirugarren atalean, beste sei pertsonaia: Tartalo, Gaueko, Gaizkine, iratxoak eta galtzagorriak, Gauargi eta sorginak. Horrenbestez, hiru ataletako pertsonaiok aintzat hartzen baditugu, bistan da aniztasuna dela liburu honek duen ezaugarrietako bat.

Bitxia da, bestalde, aurretiaz aipaturiko pertsonaje hauek guztiok eta beraien ahotatik irakurleak jasoko dituen kondairen agertokia edo eszenatokia zein den ikustea. Zein izango eta, geure garaiak ezaugarri duen teknologiarik estu-estu lotzen zaion ikurretako bat: ordenagailua. Bai, batzuetan haurren eskura ere ipini ohi den ordenagailuaren bitartez mitologiaren antzinako mundu magiko hori eta XXI. mendeko geure munduaren errealitatea lotuta gelditzen dira, lehengo garrietako kontuak geure egunetara ekartzeko bitarteko horixe erabili du idazleak. Bestalde, bederatzi eta zazpi urteko Nerea eta Julen anai-arrebak dira beren amaren ordenagailura hurbildu eta «Arraioak» hitz magikoa esandakoan, pertsonaia guztiekin harremanetan jarri eta haien gertakariak eta kondairak jasoko dituzten protagonista behinenak.

Liburua osatzen duten hiru ipuinak autonomoak dira, esan nahi baita, solte irakur daitezke horrela nahi izatera. Ez da, ezinbestean, lehenengoa irakurrita izan behar bigarrenaz edo hirugarrenaz jabetzeko. Baina autonomoak izanda ere, hiru-retan finkoak diren Nerea eta Julen pertsonaiek nolabaiteko jarraipena eta osotasuna ematen diete. Eurak dira lotura.


Bestalde, egokia iruditu zait, ipuin bakoitzaren atarian, irudi eta guzti ageri diren pertsonaia mitologikoen iruzkinak eta deskribapen laburrak. Horiek guztiak lagungarri izango ditu irakurleak irakurketari ekiteko tenorean.

Aipatzekoa da baita ere, hirugarren ipuinaren amaiera irekia, etendura-putuekin emanda:

eta... Ipuin hauek noizbait jarraia izango dutela iragartzeko modu bat ote? Litekeena da.

Eta bukatzeko ezin aipatu gabe utzi liburuaren orribarrenak ilustratzeko garaian Jose Angel Lopetegik erakutsi duen irudimena eta esku fina. Marrazki koloretsuz hornitu ditu pertsonaiak egungo garaietarako moldeetara ekarriz, modernizatuz. Marrazkiek berebiziko garrantzia dute, hitzak berak bezainbeste.

Xabier Olaso



Jonasen ipuinak
JUAN KRUIZ IGERABIDE
 Ilustratzailea: MIKEL VALVERDE
 Aizkorri, Bilbo, 2010

Ez da oso ohikoa gurean aurrez idatzita dauden liburuak errekuaraztea eta edizio bakar batean berriz argitaraztea, era honetara obrari garrantzia emanez. Horrela egin zuen, esate baterako, Erein argitaletxeak Mariasun Landaren Iholdi guztiak kaxa batean bildu zituen eta, bide batez, Asun Balzola zenak ilustrazioak berriro zituen.

Jonasen lehenengo ipuina kaleratu zenetik hamar urte joan dira. 1999an, haur-literaturako Euskadi saria irabazi zuen, eta lehenengo aldiz lortzen zuen sari hori haur txikiarentzako liburu ilustratu batek. Gerora, Jonasen beste bost narrazio eskaini zizkigun idazle fin eta emankorrek, eta *Adio Jonas* ipuinarekin (2007) amaiera eman zion bildumari. Bere esanak dira: «Literaturan gauzarik okerrrena da irakurlea aspertzera, ez nuen pertsonaiaz gehiago baliatu nahi».

Alabaina, badago arrazoirik Jonasen ipuinak biltzeko. Pertsonaia ezaguna da eta horren adierazle da, adibidez, *Jonas eta hozkailu beldurtia* liburuak seigarren argitaraldia ezagutu duela. Nola ez diogu, bada, aitortuko euskal haur-literaturan izan duen pisua?

Ilustrazioek Mikel Valverderenak izaten jarraitzen dute. Halaxe behar! Irakurlea ohitu egin da harridura-keinu horretara, «opil goxo bat dirudien aurpegia», poza edo larritasuna hain ondo adierazten duen musua. Halere, esango nuke marrazkien koloreek intentsitate apur bat galdu dutela. Azalean agertzen zaigu ilustrazio

berri bakarra: Jonas kaxa batetik ateratzen da eta kaxak bildumaren zentzu metaforikoa du, oparia eta ezuste polit baten sinbologia bilduz. Eta otu zait, liburuak biltzeko modura, kaxa-formatua erabiltzea ere ondo zegokeela, irakurlearentzat opariaren zentzua areagotuko zukeela.

Jonasen istorioak mamitsuak dira, edozein haurren heziketa-prozesuan bizitzako legeak agintzen dituenak. Jonasek, ipuinetan zehar, 3 urtetik 6 urtera doan bidea egiten du. Eguneroko egoerak agertzen zaizkigu, hari nagusia emozio eta sentipenak dira. Lehenengo ipuinean beldurra da gai nagusia. Bigarrenean, haurrentzat muturrekoak diren bi sentimendu azaltzen dira, poza eta pena: «pena bihotzaren zukua da eta gazi-gazia da». Hirugarren istorioan, arrebatxoa jaito denetik, jelsokortasuna maitasunarekin nahasturik zer den jakingo du Jonasek. Laugarren ipuinean larri agertzen zaigu egindako ekintza susmagarri baten erruz, eta,aldi berean, urduritasuna eta lotsa zer diren ikasiko du. Arazo potolo bat izango du bosgarren narrazioan: gurasoek psikologo batengana eraman nahi dute; izan ere, Jonasek dio sorgin handi eta maltzur bat gauean etortzen zaiola. Istorioren horretan idazleak ametsa eta errealitatea uztartu egiten ditu. Haurra hazi egingo da, hasierako lotsa eta egoera zaila gaindituz, «pozez beterik, musu handia bidali dio izebari, hain musu handia... ia ez da kabitzen telefonoan».

Bilduma amaitzeko, *Adio, Jonas* dugu. Oraindik gure protagonista mutil inozoa baldin bada ere, inguru interpretatzeko ahalmen handiagoa du, bere burua seguruago ikusten du, eta autonomoago. Oraingoan, pozetik desilusiora doan bide estua egingo du. Ezin du itxaron, kalera atera eta hirian galduko da. Larritasuna, beldurra, lotsa, pena... bildumari amaiera ematen dion ipuin horretan, emozio nagusiak biltzen dira, emozioekin literatura egiten du Juan Kruz Igerabidek.

Jonasek, azkenik, poza, lasaitasuna, esker ona sentitzen ditu.

Guk ere bai, halako opari ederra jaso dugulako.

Asun Agiriano

Parisepeetit

IMANOL AZKUE

Ilustratzailea: EIDER EIBAR

Aizkorri, Bilbo, 2010

Imanol Azkue Ibarbia (Zumaia, 1965) ipuin-gintzan aritu da batez ere, eta zenbait literatur lehiaketa irabazi ditu (Zumaiaiko Julene Azpeitia, Ondarroako Augustin Zubikarai, Lasarte-Oriakoa...). Sarien artean nabarmentzekoa da bi aldiz irabazi duela Lizardi saria: 2002an *Gaur egun handia da* lanarekin eta, 2005ean, *Kea airean bezala* lanarekin.

Hain zuzen, bigarren Lizardi saridun *Kea airean bezala* honen ilustrazio-lana Eider Eibarrek egin zuen, *Parisepeetit* lanerako ere lankide duen irudigileak.

Eider Eibar (Zornotza, 1980) azken urteotako ilustratzaile erik emankorrenetakoa dugu: gutxienez 25 titulu izenpetu ditu azken bost urteotan, besteak beste *Ez naiz sirena bat... eta zer?*, *Musuen gustua*, *Bizi*, *Bixitxo*, *Anekdotak edota klara zirimola*. Liburu horiek ikusi dituenak badaki ilustratzaile honek lan bakoitzean proposamen estetiko desberdin bat egiten saiatzen dela, testuaren lagungarri ez ezik, harekin batera kontakizunaren egile egiten duena. Alde batera utzi gabe bere-berea duen estiloarekin. Gaurko *Parisepeetit* esandakoaren adibide garbia dugu, zinez.


Baina, zer kontatzen da ba, *Parisepeetit* honetan?

Labur esanda, oporretan, Pariseko metroan, gurasoengandik galtzen den hauraren istorioa da. Izatez, 2008an Azkue-Eibar tandemak sinatutako *Bizi*, *Bixitxo* haren antzeko ezaugarriak ditu, heroi txikiak, gertaera domestikoak, arlo pribatu-intimoan eragingo duten aldaketak.

Kontakteta bi partetan banatuta dago. Lehenengoan, Parisi buruzko ohartxo batzuk ematen zaizkigu, hala nola, hiriaren zer-nolakoak, Eiffel dorrea, metroa zer den eta, bidenabar, frantses hizkuntzaren pare bat topiko.

Liburuaren bigarren partean, protagonista metroan galdu zenekoa kontatzen zaigu: nola gertatu zen, haren erreakzio eta pentsamenduak, hartu zituen erabakiak eta gurasoekin elkartu arte biziko zuena.

Batik bat, arkatzez marraztuta eta ordenagailuz margotuta, ilustrazioek metroa, haren ikonografia



eta Paris dute ardatz. Metroetako planoen ikonografiaz baliaturik, koloretako marrek eta puntuek osatzen dituzte marrazki askoren atzeak; aurrealdeetan karikaturatik errealtismoantzez doazen pertsonaiak metroetako paisaiarekin konbinatzen dira: bidaiariak, musikaria, tiket-saltzailea...

Metro-planoaren zatiak irudikatzen dira, baita sator batzuen irudiak ere, lurrazpiko bideen irudimen-jolas umoretsua eskainiz.


Haur-giroko jolas horren parte dira ere kontakteta eraikitzeo aukeratutako ikuspuntuak. Esaterako, haur protagonista da istorioaren narratzailea, eta gainerako pertsonaiak (jende heldua) ia ez dute hitzik esaten. Horrek hauraren bizi esperientziaren lekukotasunari garrantzia ematen dio, jakina. Ildo horri jarraiki, kapitulu laburretan banatuta dago testua, irakurketari arintasun handia ematen diolarik. Kontaktetaz ez du tentsio une «gogorrik», protagonistak lasaitasuna erakusten duelako unerik zailenetan eta, baita ere, ez delako egoeraren larritasunaz guztiz jabetzen. Eta, hain zuzen ere, lasaitasunerako mezu hori da narrazio honek irakurle bidaiariari eskaintzen dion balio nagusia.

Halere, ez pentsa protagonistak batere beldurrik pasatzen ez duenik. Bakarriz geratu dela ikusi eta metroan aurrera doan gisara bere burua estu ikus-

ten du, eta segurantzia emango dioten makuluen bila ari dela adierazten digu bai hitzez «Nik maleta neukan hanka artean, eta [...] heldu egin diot eskuarekin, gogor, [...] hor neukala sumatzeak segurantzia ematen zidalako», bai ekintzez, ingurua kontu handiz aztertu eta familiakoekin pentsatzen jartzen baita.

Batek pentsa lezake ondorioetan urrutitxo joatea dela, baina irakurketarekin sortzen den larritasun dosi minimo hori, txertoen antzera erabilia izan dela dirudi, irakurleengan halako egoeren aurrean immunitatea sortzekoarena, alegia. Irakurri dizkiogun gainerako lanak kontuan hartuta, Azkuek ezaugarri horiek errepikatzen dituela dirudi, *Kea airean bezala* urratzailearekin bere buruari ezarri bide zion ildoak: Azkueren obraren funtsa gertaera intimoen kronika ote?

Imanol Mercero



Kerity, ipuinen etxea
 ANIK LE RAY
 Ilustratzailea: RÉBECCA DAUTREMER
 Itzultzailea: BAKUN S.L.
 Ibaizabal, Euba, 2010

Irudiekin sorginduta

Haur liburuak dira benetan liburu unibertsal bakarrak, haurrek zein helduek, mundu guztiak, irakur ditzakeen bakarrak. Horregatik, aurkezten badigute hau bezalako liburu ikusgarria, marrazki txundigarri eta edizio zainduan bilduta datorrena, samur lortuko da denon begiradak erakartzea.

Halaxe dator Ibaizabal-en aurtengo album ilustratua, Anik Le Ray animazioko zine-gidoilariaren testuaren babespean eta Rébecca Dautremere-
 en ospe handiko marrazkilaria eskutik. Bizkaiko argitaletxe honek urtero oihartzun handiko album baten itzulpena eskaintzen digu. Esaterako, azkeneko urteetan, hor izan ditugu Dautremere-
 ren *Nasrudin*-en bi liburu, *Serafin arkumearen* bildumakoak, eta baita Alan Serresen *Animalia harrigarriak* formatu handiko albuma ere.

Kerity Ipuinen etxea liburuaren azala ikusi orduko, beraz, munduan zehar jarraitzaile asko dituen marrazkilaria honen miresleak ondo antzemango du zein den irudigilea. (Ikusi, bestela, bisitatzea merezi duen bere web orria www.rebeccadautremere.com).

Marrazkiak ez dira liburu honen dohain bakarra. Testuak, urria izanda ere, maila handiko ilustratzailearen trebeziari eusten dio. Argumentuan fantasia

10 +

eta errealitatea uztartzen dira. Britainiako Kéryti herriko udako etxe batean girotzen da kontakizuna. Natanael protagonistak eta bere familiak Eleonorren etxea eta liburutegia jasoko dute herentzian; liburuek, baina, sekretu bat gordetzen dute: iluntzero han dauden ipuin unibertsal hain heroiak —Alice, Pinotxo, Katu Botaduna, Txanogorritxo, etab.— pertsonaia gaiztoekin batera —ogroa, sorginak— hezur-haragizkoak bihurtuko dira, bakoitza bere nortasunarekin. Gertaera ugari jazotzen dira zinearen ohiko osagarriekin: abentura eta ezusteko franko. Istorio bizi eta indartsu honek adiskidetasuna, liburuak eta irakurketaren balioak goraiatzen ditu.


Nabarmena da nola liburu osoan zehar, irudiak gainezka egiten duen. Kolorea nagusi da. Dautremere-
 ren gorriaren mina lehendik ezagutzen genuen: *L'amoureux, Princesses oubliées ou inconnues, Gyano* . . . baina, oraingoan, beltza eta tonu ilunagoak ere nahasten ditu. Esan behar da liburuaren irudiak *Kerity, la maison des conte* iaz Frantzia estreinatua zen film-eko fotogrametatik aukeraturakoak direla. Ez da papererako sortutako istorioa, animazioko pelikula baten laburpena baizik, horregatik itzalak eta argiaren joko hori marrazkietan, eszenategi handiaren irudikapen ezohikoa. Ilustratzaile bitxia da, ikuspegi konplexua duena, zinearenak propio diren irudiak sortzen dituena.

Sarri, marrazki txundigarri hauekin batera idazten diren testuak bihurriak izaten dira, ez oso ulergarriak, batez ere, haur txikiarentzat. Gehienetan, helduak dira liluratuta geratzen direnak Dautremere-
 ren album ilustratuekin, irudi-mozkorraldi honek sorginduta, eta helduak dira liburuak eurentzat erosten dituztenak. Hala ere, aitor dezagun, kalitate artistiko handiko ilustratzaile baten aurrean gaude.

Egutegietan, poltsetan, kaiera txikietan, irudi samur eta bigun hauen egileak salgai jarri du bere lanaren emaitza, eta gu irakurle helduok, maitatuak izatea nahi dugunok, grana kolorearen atzaparretan erortzen gara.

Asun Agiriano

12 +



Beste Gu
 ASIER MENDOZA
 Ilustratzailea: IVAN MATA
 Elkar, Donostia, 2010

Odolaren usainak erakarrita


Kristian gaztea dugu ipuin honen protagonista, eta gaztetxo honi jazotakoak biltzen dira ipuin honetako kapitulu ugarietan. Argumentua nahiko korapilatsua dela esan dezakegu; izan ere, gauza eta kontu asko kontatzen baitzaizkigu orrialde gutxitan. Hori da, hain zuzen, ipuin honen ezaugarrietako bat: duen egitura berezia. Hiru ahots ageri dira istorioa narratzen: hirugarren pertsona, Kutz doktorea omen dena eta Kristianekin izaniko elkarrizketen ondorioz lorturiko informazioa ematen diguna, eta, lehen pertsona kontaturiko bi egunkari: Kristianena, alde batetik eta Elizabethena bestetik. Hiru elementu horien testuak konbinatuz lortzen du Asier Mendozak ipuin honen puzzlea osatzea, eta lan honi esker irabazi zuen Lezamako Udalak eta Elkar etxeak antolatutako I. Mikel Zarate haur-literatura saria; eta, alde horretatik, oso pozgarria da literatura sari batek idazle berriak plazaratzeko aukera ematea, gazteak animatzea eta gure literaturaren panoraman bestelako ikuspegiak, istorioak, kontatzeko moduak plazaratzea.

Mendozak banpiroen istorioetatik nahiko hurbil dagoen kontakizuna azaltzen digu; are gehiago, ezagunak zaizkigun hainbat testu, film, erreferentzia, ageri dira han-hemenka testuan zehar aipatuak, islatuak. Banpiroen tradizio hori hasiera-hasieratik azaltzen zaigu, liburuko lehen lerroetatik: «Zergatik ez ote zuen Kristianek aurpegia ispilu aurrean garbi ikusten? [...] Bazekien zerbait arraroa gertatzen ari zitzaiola, eta pixkanaka hazten zihoan susmoak ez zion lasai lo egiten uzten». (7. or.). Baina hainbat kapituluetan susmoa gauzatzen ari dela ikusten dugularik, hara non amaierak istorioari buelta emanaz, bestelako ikuspegi eta gertakariak azalduz, irakurlea harritu egingo duen.

Beste Gu hau nahiko erraz eta arin irakurtzen den ipuina dugu. Kapitulu laburrez osaturiko narrazioa dugu, eta, arestian aipatu bezala zenbait ahotsek ikuspegi ugari eskaintzeaz gain, lagundu egiten dute kontakizunaren erritmoan bizitasun handia emanez. Baina, bestalde, ahotsak ez daude oso lortuak, elkarrizketen transkripzioek kontakizunak dirudite, egunkarietako narrazioak, batzuetan, zehatzegiak dira, elkarrizketez osaturik, deskriptiboegiak (Kristianek gurasoekin gau batean duen elkarrizketa, adibidez)...

Eragozpen horiek kenduta di-da batean irakurtzen den istorio harrigarri eta entretenigarri baten aurrean gaudela esan dezakegu; Matak, irudien bidez, ederki girotu duen kontakizun banpirikoa, gazteen arteko zenbait istorioak biltzen dituen ipuin arina.

Xabier Etxaniz Erle



Laminen sekretua
JUAN MARTIN ELEXPURU
 Ilustratzailea: LEIRE URBELTZ
 Elkar, Donostia, 2010

Lamina maravigliosaren abentura

Juan Martin Elexpuru mitologia eta gaur egungo gizartea batzen dituen haurrentzako nobelatxoa idatzi du: *Laminen sekretua*. Istorioaren abiapuntua gazte batek jasotzen duen dei bat dugu: «Fraixko bizikletari gupilak puzten ari da lagunekin erre kara joateko, telefono txikiak jo dionean». Eta esaldi horrek adierazten duen bizitasuna mantendu egiten da nobela osoan zehar, Elexpuru, aurreko bere zenbait lanetan erakutsi digun bezala, oso trebea baita istorioak kontatzen.

Fraixko gazteari Mario Carmani diseinatzaile guztiz ezagunak deitu dio, eta kontua da Fraixkorekin egon nahi duela proposamen bat egiteko: lamina bat behar du modelo aritzeko.

Idea horretatik abiatuta mundu mitologikoa eta modernoa elkarrekin aritzen dira nobelan zehar. Eta, hasieran laminak-eta kontra bazeuden ere, azkenean onartu egiten dituzte Carmaniren proposamenak eta, hortik aurrera, nobelak beste espazio eta beste tonu bat izango du. Baina ez aurrekoa baino interes eta misterio gutxiagokoa.

Arestian aipatu dugu nobelaren bizitasuna, eta horixe dugu idazlan honen ezaugarrietako bat. Oso

deskripzio gutxi daude (laminaren inguruan behar direnak eta beste bakar batzuk), pertsonaiak beren ekintzen bidez azaltzen zaizkigulako; Fraixko nolako den, eta zer egin duen, elkarrizketa eta oharren bidez jakingo dugu, eta gauza bera gertatzen zaigu diseinatzailearekin; haren komentario eta adierazpenak direla eta, berehala hartuko diogu susmo txarra.

Fantasia, mitologia, mundu horren bidez gaur egungo mundua hobeto ezagutzeko parada ematen digu nobela honek (antzeko zerbait gertatzen zen idazle berberaren *Marea biziak zozomikotetan* lanean, esaterako), bai eta bizitzaren benetako balioak zeintzuk diren ezagutzeko ere.

Laminak protagonista dituen nobela honek Euskal Herria du abiapuntu, hemengo txoko batean bizi da Fraixko, eta Arantzazutik aurrera abiatuta mendian Marimendi lurralde magikora iritsiko dira; han Mariarekin egon ondoren laminekin egiten dute topo eta haiekin adostu Marimasusta joango dela Carmanirekin.

Nobelaren bigarren aldea Milanen kokaturik dago. Eta modaren inguruko munduaz aritzeaz gain, Marimasustari jazotakoak biltzen ditu, laminaren bahiketa barne.

Misterio eta ekintzaz beteriko lana dela esan dugu, baina hori baino gehiago ere bada abenturazko lan hau. Umorea nahiko presente dago —Mari deskribatzerakoan, egiten dituen ekintzak azaltzerakoan...— bai eta amodio istorio baten lehen zantzuak ere, nahiz eta hauek ez gauzatu. Horrez gain, elkarrizketa ugari narrazio bizia dakarte eta elkarrizketa horietan ageri diren protagonisten herrialdea, non jazotzen ari diren gertakariak. «Marimasustea, Marimasusta, *una parole tue*», «—*Tutto bene, Adriano*. Neska libre utzi behar duzu esandako moduan eta lekuan. *Capito?*»...

Laminen sekretua nobela gustura irakurtzen den idazlana dugu, beraz; argumentua erakargarria da, irakurtzen dugun bitartean gure gizartea eta bizitzaz gogoeta pittin bat egiteko ere balio du, eta oso euskara zainduan—eta egokian irakurlearen adina kontuan izanik— idatzita dago. Gainera, orain arte komentario hau irakurtzen ari dena konturatu ez bada ere, Elexpuru argitu egingo digu zein den laminen sekretua. Baina hori jakiteko liburuko orrietan murgildu beharko dugu.

Xabier Etxaniz Erle


Vampiria

AITOR ARANA

Ikasmina, Bilbo, 2010

«Banpirozaleei» dago eskainita liburu hau, eta, izenburuak berak adierazten duen moduan, badu zerikusirik banpiroekin. Erdaraz gazteen artean gero eta indar handiagoa hartzen ari den tematika dugu hori, eta, orain, badirudi euskarazko literaturara ere iristen ari dela (gogoan izan, esaterako, *Beste Gu* Mikel Zaratze saria irabazi zuen obra ere).

Aitor Aranak idatzitako nobela honek oso egitura berezia du: kapitulu laburretan banaturik dago eta, era berean, narratzaileak ere ugari dira. Irakurleak hainbat moduren bidez jasotzen du istorioaren haria; alde batetik, protagonista nagusiaren egunerokotik, Mikelen ordenagailu mezu laburretatik, kontakizuneko protagonisten inguruan hirugarren pertsonako narratzaile orojakilearen aldetik... hots, ikuspuntu ugari eta protagonista asko batzen duen egitura bizi eta ari-na lortu du Aranak. Baina, horrez gain, istorioaren argumentuan asmatu egin duela esango nuke. Banpiroen istorioa da, banpiroa dela uste duen neska batena, baina haratago doa abentura edo misteriozko nobela honen argumentua; izan ere, Valatek, banpiroen nagusiak, Joana neskatua bere-



ganatu nahi du banpiroen erabateko nagusitasuna eskuratzeko. Helburu hori lortzeko bidean, baina, Mikel aingerua eta haren nagusia tartekatuko dira nobelari amaiera lortua emateko.

Vampiria nobela, 2010eko Baporea saria eskuratu zuena, idazlan bizi eta entretenigarria

da, arestian aipatu bezala; nahiko erraz eta ongi irakurtzen den lana, baina baita irakurlearen interesa harrapatzen duena ere, eta horretan badu zerikusia Aranaren estiloak: «Zain geratu naiz, bakarrik, euriari begira. Barruan egonez in handia daukadan arren, euriak lasaitu egiten nau, lurraren eta leihoaren kontra zarra-zarra jotzean egiten duen hots musikalak nire bihotz asaldatua laztantzea lortuko balu bezala». (8. or.).

Atseginez irakurtzen den obra baten aurrean gaude, beraz. Irakurlea harrapa dezakeen argumentu interesgarri eta bitxiarekin; hala ere, batzuetan, irakurleak zerbait galtzen ari dela senti dezake, ez duela haria erabat harrapatzen. Amaierak, ordea, airean geratutako ideia horiek lotu egiten ditu.

Poztekoa da, esandakoak esanda, Aitor Aranaren lan hau euskaraz argitaratua ikustea, are gehiago urtean ia-ia libururik plazaratzen ez duen argitaletxe batean argitaratu delarik. Edozein modutan, Aranak sari hau hiru aldiz irabazi izanak epe nahiko laburrean kezka puntu bat sorrarazten dit. Ez al dago idazle gehiago? Idazleengana iristen al da deialdiaren berria? Baina, uste dut kezka horiek –eta beste batzuk– euskal literatura sari gehiagotara ere zabaldu beharko genituzkeela.

Xabier Etxaniz Erle

BEHINOLA aldizkariaren harpidetza orria.

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bete ondorengo fitxa.

Izen-deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria: Posta-kodea:.....

BEHINOLA aldizkariaren urteko kuota (20 €). 2 zenbaki urtean.

Euskadiko Kutzaren honako kontu-korrontean sartu:

3035 0242 68 242 0 00247 I

eta bidali fitxa ordainketa-agiriarekin batera Galtzagorri elkartera.

Galtzagorri elkarte. Zemoria, 25, behea. 20013 Donostia. Tel.: 943 471 487

